AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2728

618/2012 EBAZPENA, maiatzaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 566/2012 Ebazpena aldatzen duena. Azken ebazpen honen bidez, hautatze-prozesuetarako Kalifikazio Epaimahaiak izendatzen dira, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundeetan izango duten zenbait kategoriatan pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko.

Indarrean dagoen legediak emandako ahalmenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 566/2012 Ebazpena aldatzea Epaimahai Kalifikatzailearen osaketari dagokionez, hau da zeladoreen Epaimahai Kalifikatzailearen osaketa honela aldatzea:

a) María Caridad Matilla Blanco andrearen bigarren kide titularraren izendapena baliogabetzea.

b) Diego Perez Corro jaunaren bigarren ordezko kidearen izendapena baliogabetzea.

c) María Isabel Postigo Espeso andrea bigarren kide titular izendatzea.

d) María Jesús Ortíz Amondo andrea bigarren ordezko kide izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren 22. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIAN PEREZ GIL.